

Baionan, mila bederatzireun eta amaboskarren urteko Agorillaren ogetabostan, "Musée Basque"ko Batzar-gelan, Etxaide jauna maipuru dala, batzen dira, Altube, Elissalde, Irigarai, Lekuona, Dassance, Lafitte, Villasante, Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak, Lojendio ta Arrue euskaltzainordeak, ta Arotzarena, Iturriaga ta Eperra urgazleak, egungo deitutako Euskaltzaindiaren batzarra egiteko. Laffon euskaltzainak eta Narbaitz urgazleak ezin etorria iragarri daue.

Araudizko otoitzaz asten da batzar au eta bereala lenaurreko batzar-agiria irakurri da ta aobatez onetsi da.

Gero Lafitte jaunak "Koska" itzaren gaizko lan polit bat dirakur. Dassance jaunak geigarri batzuk azaltzen dauz. Eta Arrue, Elissalde, Oleaga ta Lojendio jaunak bere, oartxo batzuk egiten dauez.

Urrengo, Irigaray jaunak oraintsuko batzaldian saritutako lanen argitaratzeaz daragoio. Egoki litzake guztien eritziz. Aztertu bedi arretaz noz eta zelan bete leiken argitaratze ori.

Lafitten eta Irigarairen asmoz euskal-idazkien lorategi edo kondaira bat gertutea bere egokia ta bearrizanekoa da. Oso ontzat artzen da asmo au. Asmatzaileak ikusi begiez beronen zertzeladak eta ekarri begie beronen egitamua.

Euskera Euskaltzaindi onen aldirokoa barriro argitaratu bear leiteke. Gai oneri dakio Mitxelena jaunak, batzarkide guztiak eritzi onezaz bat-batean dagozala adierazorik. Beste onenbeste jazoten da Irigarai eta Mitxelena jaunak, euskal-atlas bat bere atonduteaz aitatzen dauen asmoaz.

Gero ta aobatez Jean Hiriart-Urruti jauna urgazletzat artu da.

Eta azkenez Dassance jaunak adierazoten dau urte onetako Iraila-Buruilaren zortzian, Euskaltzaleen Biltzarrak bere urteroko batzarra Mendihondon egingo daua ta euskaltzain guztiak bertarako deituten dautsela.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.